

## **Martxoak 15eko elkarretaratzeen irakurketa**

**Egun on. Lehenik eta behin, LAB, SAE, UGT, ELA, CCOO sindikatuetatik eta Nafarroako Osasun Plataformatik eskerrak eman nahi dizkizuegu osasun unibertsala, publikoa eta kalitatezkoa defendatzeko hemen egoteagatik.**

Gaur elkarretaratzea egiten ari gara Osasunbideko profesionalen lan-baldintzak hobetzea aldarrikatzeko; eta horrekin Nafarroako herritar guztien bizi-baldintzak eta osasuna hobetuko dira. Argi dago hemen gauden guztiok ez gaudela prest kalitatezko osasun-sistema publikoa bezalako konkista sozial historikoari uko egiteko. Izan ere, osasun-sistema desagertzeak desberdintasun sozialak larriki areagotuko lituzke.

### **Profesional gisa:**

- Erosteke ahalmena berreskuratu nahi dugu, gehiago ez pobretzeko. Hain zuzen ere, azken hamar urteetan erosteke ahalmen %20 galdu dugu; eta Nafarroako Gobernuak, Osasun Sailarekin batera, zuzentzen saiatu beharrean, kolektibo batzuei bizkarra ematen die. Osasunbidekoko langile guztiei karrera profesionala aitortzea eta ordaintzea nahi dugu, une honetan pairatzen dugun desberdintasunarekin amaitzea. Gure lana egiteko beharrezkoa den etengabeko prestakuntzak kalitatezko osasun-arreta ematen die herritarrei. Behar den zerbitzuetan langile kopurua handitzea nahi dugu; biztanleek hitzordu bat ahalik eta lasterren izan dezaten, espezialitateetako itxaron-zerrendak murriztu daitezten, profesional berberak artatu ditzaten; behin-behinekotasuna murriztuz eta kontratu egonkorrak ziurtatuz.
- Gure profesionaltasuna aitortzea eta mailak birkokatzea nahi dugu. Langileen Estatutua aldatzeari lehentasuna ematen badiogu ere, hori gauzatu bitartean baldintzak hobetzea eskatzen dugu Erizaintzako Zaintza Osagarrietako Teknikarientzako eta Osasun Teknikarientzako ordainsari-osagarri baten bidez. Funtzio Publikoan onartu gabe dauden eta aurrekontu-defizitagatik egin ez diren hobekuntzak egitea nahi dugu.

Azken batean, profesional guztientzako ordainsari-hobekuntzak nahi ditugu, eta ez desberdintasunak larriagotu, Gobernu honek egin nahi duen bezala.

### **Eta herritar gisa:**

Prebentzioa, osasun mentala, auto-zaintzak, osasun komunitarioa, lan-osasuna, zainketa aringarriak eta gaixotasun kronikoen jarraipen eta tratamendu egokia sustatu nahi ditugu; eta, horretarako, gizarte osoa inplikatu (politikoa, sindikatuak, profesionalak, zientifikoak..) eta pertsonak erdigunean jarri behar dira. Hau da, OSASUN PUBLIKOA, UNIBERTSALA ETA KALITATEZKOA nahi dugu, eta hori Osasun Sailarentzat behar besteko finantzaketarekin baino ez da lortzen.

20 urte daramatzagu murrizketak eta pribatizazioak jasaten, osasun-zerbitzu publikoa negoziario bihurtu nahi dituztenak. Lankidetzak publiko-pribatua babestu behar dela erraten digutenean, jakin behar dugu nafar guztien zergekin finantzatutako Nafarroako aurrekontu orokorraren ehuneko bat osasun-enpresa pribatuekin eta farmazia-industriarekin lankidetzan aritzeko erabiltzen dela.

Quirón Salud, Sanitas, Clínica Universitaria, Medicis eta antzeko enpresei baliabide publikoak emateak osasuna negozio bihurtzen du, non osasun-profesionalek erabakiak hartzen dituzten etekin ekonomikoak bilatuz, benetako beharrei erantzun beharrean. Gaixoak haien bezero bihurtu dira.

Ez gaituzte engainatzen, badakigu osasuna pribatua den herrialdeetan heriotza-tasa handiagoa dela osasun publiko ona duten herrialdeetan baino, eta kostu ekonomikoa askoz ere handiagoa dela.

Modu asko daude osasun-sistema publikoak okerrera egin eta, ondorioz, sistema pribatua areagotzeko: aurrekontuak eta langileak murriztuz edo eskusibotasuna ezabatuz, esaterako. Langile, erabiltzaile, jendarte gisa, ezin gara geldirik egon ordezkari politikoek osasun publikoa den ondasun komuna defendatzeari uko egiten diotenean.

Denboran zehar mantendutako mobilizazioek, borrokek eta Parlamentuko alderdien eta gobernuen gaineko presioak soilik saihestu ahal izango dute osasun-sistema publikoa hondatzea eta pribatizatzea. Eta oso gertuko adibide bat dugu: Sindikatu Medikoak eskusibotasuna ezabatzeko egindako eskaeraren aurrean Nafarroako Gobernuak atzera egitea lortu izana.

Gure agintariak behartu behar ditugu osasun-sistemetan diru gehiago inbertitzera. Beharrezkoa da baliabide gehiago eta langile publiko gehiago izatea, behin-behinekotasuna murriztuz.

Osasun unibertsala, publikoa eta kalitatezkoa, berdintasun sozialaren ikur handienetako bat da, eta, horretarako, beharrezkoa da Osasun Departamentuaren aurrekontuaren % 25 Lehen Arretarako izateko helburua berehala lortzea, bai eta osasun-baliabideen kudeaketa ona lortzea ere, %100ean sistema publikoa indartuz.

Martxoaren 18an, larunbatez, 17: 30ean Iruñeko Baiona Etorbideko Golem zinemetatik aterako den manifestazioan parte hartzeko deia luzatzen diegu herritar guztiei.

Mobilizazio horien arrakastaren esku dago osasun-sistema publikoa hondatzeko eta pribatizatzekeo estrategiak porrot egitea; izan ere, sistema hori galtzeak nabarmen okertuko lituzke Nafarroako biztanleen bizi- eta osasun-baldintzak.

Animatu eta animatu zuen ingurua parte hartzera. **Osasun publikoa berreraikitzea eta indartzea GUZTION GAUZA DA**, zuen ekarpena ezinbestekoa da osasun-sistema publikoa salbatzeko.

## **Lectura concentraciones 15 marzo 2023**

**Egun on, buenos días. Desde los sindicatos LAB, SAE, UGT, ELA, CCOO y desde la Plataforma Navarra de salud, lo primero, queremos agradeceros vuestra presencia aquí, para defender una sanidad universal, pública y de calidad.**

Nos estamos concentrando hoy para reivindicar una mejora de las condiciones laborales de los profesionales de Osasunbidea dado que con ello se producirá una mejora de las condiciones de vida y salud del conjunto de la población navarra. Está claro que todos los que estamos aquí no estamos dispuestas/os a renunciar a una conquista social histórica como es el sistema sanitario público y de calidad, cuya desaparición aumentaría gravemente las diferencias sociales ya en rampante aumento.

### **Como profesionales:**

- Queremos recuperar el poder adquisitivo para no empobrecernos, ya que llevamos una pérdida acumulada del poder adquisitivo del 20% en los últimos diez años; y que el Gobierno de Navarra junto con el Departamento de Salud lejos de intentar corregir, favorece a unos colectivos dando la espalda a otros.
- Queremos que se nos reconozca y retribuya la carrera profesional para todo el personal del SNS-O y acabar con la desigualdad que sufrimos en este momento, porque la formación continuada necesaria para realizar nuestro trabajo redunda en una atención sanitaria de calidad a la ciudadanía.
- Queremos que se aumente la plantilla en los servicios en donde se necesite, para que la población pueda acceder a una cita en el menor tiempo posible, para que se reduzcan las listas de espera en las especialidades, para que pueda ser atendida por los mismos profesionales asegurando contratos estables y disminuyendo la temporalidad.
- Queremos que se reconozca nuestra profesionalidad y se lleve a cabo los reencuadramientos de niveles, dándole máxima prioridad al cambio del Estatuto de Personal y mientras esto no sucede que se mejore las condiciones mediante un complemento retributivo para los TCAE y Técnicos Sanitarios.
- Queremos que las mejoras aprobadas en Función Pública pendientes y que no se han llevado a cabo por déficit presupuestario se realicen.

En definitiva, queremos mejoras retributivas para todas y todos los profesionales, y no agravar desigualdades como está queriendo llevar a cabo este gobierno.

### **Como ciudadanas y ciudadanos**

- Queremos potenciar la prevención, la salud mental, los autocuidados, la salud comunitaria, la salud laboral, los cuidados paliativos, las enfermedades crónicas... y para ello hay que contar con toda la sociedad (política, sindical, profesional, científica...) y poner en el centro a las personas. Es decir, queremos UNA SANIDAD PÚBLICA, UNIVERSAL Y DE CALIDAD y esto solo se consigue con una financiación suficiente para el Departamento de Salud.

Llevamos 20 años de recortes y de privatizaciones que buscan transformar el servicio público de salud en un negocio. Cuando se dice que hay que apoyar la colaboración público-privada, tenemos que saber que un porcentaje del presupuesto general de Navarra financiado con los impuestos de todas y todos los navarros se utiliza para colaborar con las empresas sanitarias privadas y con la industria farmacéutica.

La entrega de recursos públicos a empresas como Quirón Salud, Sanitas, Clínica Universitaria, Médicis, etc... convierte la salud en un negocio, donde los profesionales sanitarios toman decisiones buscando beneficios económicos en lugar de atender necesidades reales. Las y los enfermos se han convertido en sus clientes:

No nos engañan, sabemos que en los países donde la sanidad es privada la mortalidad es superior a los países con una buena sanidad pública y el coste económico es mucho mayor.

Existen muchas fórmulas para deteriorar el sistema sanitario público y que como consecuencia aumente la privada; por ejemplo, recortando presupuestos y personal o también eliminando la exclusividad. Como trabajadores y trabajadoras, como personas usuarias, como sociedad, no nos podemos quedar impasibles cuando los representantes políticos hacen dejación en la defensa de este bien común, que es la sanidad pública.

Solamente movilizaciones mantenidas en el tiempo, luchas y la presión sobre los partidos parlamentarios y gobiernos podrán evitar el deterioro del sistema público de salud y su privatización. Y tenemos un ejemplo muy cercano, el de haber conseguido que el Gobierno de Navarra recule ante la petición del Sindicato Médico de eliminar la exclusividad.

Hace falta obligar a nuestros gobernantes a invertir más dinero en los sistemas de salud. Es necesario dotar de más recursos y más personal público bajando la temporalidad.

La sanidad universal, pública y de calidad, es uno de los mayores síntomas de igualdad social y, por ello, es necesario lograr el objetivo inmediato del 25% de presupuesto para Atención Primaria y también lograr una buena gestión de los recursos sanitarios reforzando un sistema ciento por ciento público

Hacemos un llamamiento a toda la ciudadanía a participar en la manifestación del día 18 de marzo, sábado, a las 17.30 que saldrá de los cines Golem de la Avenida de Baiona. De Pamplona.

Del éxito de estas movilizaciones depende el hacer fracasar la estrategia de deterioro y privatización del sistema público de salud cuya pérdida supondría un deterioro significativo de las condiciones de vida y salud del conjunto de la población navarra.

Animaros y animad a vuestro entorno a que participe. **Reconstruir y fortalecer la sanidad pública ES COSA DE TODOS Y TODAS.** Vuestra contribución es indispensable para salvar el sistema sanitario público de salud.